ARGIA.EUS
PUBLIZITATE TARIFAK 2018

Webgunean eta mugikorretan ikusgai (astero 35.000 sarrera)

AZALEAN	NEURRIA	ASTEBETEZ	2 ASTEZ	3 ASTEZ	HILABETEZ	URTEBETEZ
BANNER NAGUSIA HANDIA	793 x 105 px	1.000 €	1.800 €	2.550 €	3.200 €	-
BANNER NAGUSIA ERTAINA	367 x 115 px	600 €	1.080 €	1.530 €	1.920 €	-
ALBISTE BANNER HANDIA	450 x 175 px	350 €	630 €	892,50 €	1.120 €	-
ALBISTE BANNER ERTAINA	312 x 150 px	200 €	360 €	510 €	640 €	-
BANNER BOTOIA	367 x 105 px	-	-	-	400 €	1.900 €

EGUNEKOAK, ASTEKARIA, BLOGAK, MULTIMEDIA ETA BULETINAK ATALETAN	NEURRIA	ASTEBETEZ	2 ASTEZ	3 ASTEZ	HILABETEZ	URTEBETEZ
ALBISTE BARNEKO BANNER NAGUSIA	1250 x 150 px	800 €	1.440 €	2.040 €	2.560 €	-

Originalak bidaltzeko baldintzak

- Iragarkien formatuak hauek izan daitezke: GIF, JPG, PNG, MP4, SWF.

Kontratazio arauak

- Publizitate espazioa hitzartutakoan bezeroak publizitate-agindua sinatua eta izenpetua bidaliko du ARGIAra posta arruntaz edo e-postaz.
- Aldez aurretik bezeroarekin ez bada kokapen zehatzik hitzartu, ARGIAk erabakiko du bannerra non kokatu.
- Bannerraren prezioa indarrean dauden tarifen araberakoa izango da eta zenbateko horri dagokion BEZ zerga erantsiko zaio fakturatzean.
- Bannerren batek eraginkortasuna galduko balu gaizki argitaratzeagatik, ARGIAk ordezko iragarki bat plazaratzeko konpromisoa hartzen du, bezeroarekin adostutako euskarrian.

Egizu erreserba: ✆ **943 371 545 | publiz@argia.eus | www.argia.eus**

Banner kokapenak **argia.eus azalean**

Egizu erreserba: ✆ **943 371 545** | **publiz@argia.eus** | **www.argia.eus**

Banner kokapenak **albiste barruan**

2018KO OTSAILAREN 16A, OSTIRALA | **ORDUA EUSKAL HERRIAN** 11:28:37

DENDA · IRAGARRI · KONTAKTUA EGIN ARGIAKOA

Albisteko banner nagusia
1250x150 pixel

"ERREMENTARI" FILMA

Fikzioa euskararen territorio libre

Paul Urkijoren pelikula berrian, pertsonaia bakoitzak hizkera bat darabil, istorioaren aberasgarri. Arabako euskara zaharra ere berpiztu dute. Film luzea martxoaren 2an emango dute lehen aldiz.

DABI PIEDRA 2018ko otsailaren 18a

34

Hika, zuka eta berokika erabili dituzte filman, baita erregistro kolokiala eta jasoa ere, eta euskalkiak.

Paul Urkijoren lehenengo film luzeak, *Errementari*-k, ikus-entzuleen irudimena kitzikatzen du, Patxi Errementariaren ipuinean oinarritutako istorio fantastikoa baita. Misteriozko giro berezi horri indarra emateko tresna da hizkuntza bera ere, euskara alegia. Pertsonaia batzuek Arabako euskaraz hitz egiten dute, beste batzuek batuan... nahasketa bitxi bezain eraginkor horrek toki eta garai urrunetara garamatza eta, gainera, pertsonaien arteko aldeak nabarmentzen ditu. Berdin hitz egin behar al dute herritar xume batek eta diputazioko komisario arranditsuak? *Errementari*-n, behintzat, ez.

Jatorrizko gidoia Paul Urkijok berak idatzi duen arren, Gorka Lazkano itzultzailea arduratu da hizkuntza kontuez. Hasieran euskara batuan behar zuten hitzak beste kolore bat hartzen hasi ziren. "Arabako euskara erabiltzea proposatu zidan Gorkak eta ukitu interesgarria iruditu zitzaidan", kontatu digu Urkijok. "Argi nuen euskara zahar bat behar nuela, istorioa XIX. mendean girotuta dagoelako". Arabako Mendialdean kokatutako filma izanik, behinola Araba ekialdean hitz egin zen aldaeran oinarritzea izan zen asmoa, Lazkanok azaldu digunez: "Ekialdeko idazki zahar batzuekin moldaketa batzuk egin eta hizkera ulergarri bat sortzea posible zela ikusi genuen". Sabando herriko Joan Bautista Gamizek XVIII. mendean idatzitakoa izan dute oinarri: "Istorioaren garaira eta tokira gehien hurbiltzen dena da".

Koldo Zuazo hizkuntzalariari aholkua eskatu zioten, Arabako euskararen ezaugarriak berreraikitzen aritu baita 1989tik. Makina bat testu eta lekukotza zahar aztertuak ditu, tartean Gamizen 238 bertsoak. Ia hiru hamarkadako lanaren ondoren, bere jakin-mina oraindik ez duela "ase" kontatu digu hizkuntzalari eibartarrak. Hark idatzitako *Arabako euskara* liburua izan da Gorka Lazkanoren itsasargia, pertsonaiak ararbarrez mintzatzen jartzeko esperimentuan. Gainera, Zuazok gidoia irakurri zuen eta iradokizunak egin zizkien. "Koldoren ekarpenarekin argiago ikusi nuen dena, batez ere aditzari dagokionez –dio Lazkanok–, hasieran Arabako ezaugarri gehiegi sartu nituen eta berak esan zidan batzuk alboratzeko; lastoa eta alea bereiztea bezala izan zen".

Deabrua hizketan

Euskara batuak ere badu lekua *Errementari*-n. Hizkera estandarra, zaindua eta jasoa denez gero, pelikulan agertzen diren zenbait pertsonaiarentzat egokiagoa da, euskalkiak ez baitu horiekin "funtzionatzen", Lazkanoren arabera. "Instituzioetako pertsonaiek eta deabruak hizkera landua, teatrala behar zuten eta horretarako batua zen aproposena", gaineratu du Urkijok. Deabruaren esaldi apokaliptikoak, esaterako, batuan jarri dituzte.

Beste aukera batzuk aztertu zituzten (*euskañola* kasu), baina "gustura" geratu dira batua aukeratu izanarekin. Orain dela 150 urte euskara baturik ez zegoen, baina, Lazkanok ohartarazi duenez, diputazioko ordezkari batek euskaraz egitea ere ez da oso errealista. Zinemaren magia da hori. Gainera, Ramon Agirre eta Eneko Sagardoi aktoreek euskara batua "oso modu naturalean" darabiltela azpimarratu du.

Narratzaileak, ordea, Ataungo euskaran hitz egiten du, Patxi Errementariaren ipuina bildu zuen Joxemiel Barandiarani omenaldia egiteko. Hori gutxi ez, eta beste euskalki batzuk ere erabili dituzte, informazio gehigarria emateko, Lazkanoren arabera: "Adibidez, Gotzon Sanchezen pertsonaiak, herriz herri salerosketan dabilen kinkilariak, Oiartzualdeko hizkera bat egiten du, hori nahikoa izan liteke jakiteko hura ez dela herrikoa".

Euskararen aldaerekin sortutako jokoak istorioa "aberastu" egiten duela uste du Lazkanok. Alde batetik erabili dituzte trataerak (hika, zuka, berorika), bestetik erregistroak (kolokiala, jasoa), eta azkenik, euskalkiak. "Pertsonaiei izaera ematen diete, pelikula janzten laguntzen du". Koldo Zuazo bat dator horretan: "Ezin ditugu denak berdin hitz egiten jarri, ez da benetakoa. *Errementari*-n Arabako herri txiki

ASTEKARIA

2587. zenbakia
2018ko otsailaren 18a
ASTEKARIA PDFan

BABESLEA

Irizar

AZKENAK

Iberdrolak argia moztu die Gasteizko Alde Zaharrean okupatutako bi eraikini

Gaztelania Kataluniako hezkuntza ereduan inposatzeko 155a erabiltzeko prest dago Madril

Espainiako armada da Ezkabako ihesaldiaren ibilbidea egingo duen lasterketaren antolatzaileetako bat

Sare sozialetan zabaldutako mezuengatik Euskal Herrian "hainbat lagun" atxilotu dutela salatu du AEMk

Egizu erreserba: ✆ **943 371 545 | publiz@argia.eus | www.argia.eus**